

URRETXU-ZUMARRAGA / Liburuak plazara

MIRIAM LUKI

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna da gaur, eta erakundeetatik haurrengan irakurtzeko zaletasuna sustatzeko bideak jorratzen ari diren garaiotan, Urretxuko eta Zumarragako udalek bat egin dute. Gaur arratsaldean Maite Franco ipuin kontalaria Zumarragako Udal Liburutegian izango da, eta bihar arratsaldean Kaleko Liburutegia zabalduko dute Areizaga-Kalebarren plazan. Erakundeek badute zer eginik gai horretan ere; zeregin handiena, ordea, bakoitzaren etxean hasten da.

Liburutegi berria zabaldu genuenetik haur eta gaztetxoentzat espazio berezia dugu, eta abantaila handiak ekarri ditu, helduen gunetik banatu dugulako. Gainera asko dira seme-alabekin liburutegira etortzen diren gurasoak. Maileguan uzten ditugun liburu guztietatik kopuru handia haurrentzat atzeratzen da liburutegitik, dio Zumarragako liburutegiko arduradun Irene Gonzalezek. Urretxuko liburutegia arratsaldetan irekitzen dute aste egunetan, eta han ere haurren liburuak eta materialak asko mugitzen direla dio Ane Arana arduradunak.

Hizkuntzari dagokionez, helduek erdarazkoak hartzen dituzten kopuruaren ondoan euskarazko liburu gutxiago ateratzen dira. Liburuen aukeraketa moda kontua ere bada, hedabideetan ateratzen diren liburuen eske etortzen zaizkigu, gehienetan gaztelaniaz idatzitakoak. Karmele Jaioren Amaren eskuak edota Bernardo Atxagak kaleratu berri duen Zazpi etxe Frantzian dira une honetan euskaraz gehien eskatzen dizkigutenak; baina, egia da liburutegitik euskarazko liburu gutxi ateratzen dituztela, gehitu du Gonzalezek.

Ipuin kontaketa

Haur literaturan, ordea, euskarazko liburuen maileguek gora egiten dute Urretxuko eta Zumarragako liburutegietan. Gurasoek ere seme-alabentzako euskarazko liburuak etxera eramateko ohitura badutela diote bi liburuzainek.

Liburuen bi egun horien harira Franco kontalariak bi saio egingo ditu Zumarragako liburutegian. Gaur 18:00etan lehena, eta hilaren 23an hurrena, Liburuaren Nazioarteko Egunean. Kontaketa biak lau eta sei urte bitarteko haurrei zuzenduak dira, euskaraz eta ordubeteko iraupenekoak. Bihar, bestalde, Kaleko Liburutegia eta Azoka jarriko dituzte Areizaga-Kalebarren plazan. Duela hamabi-bat urtetik egiten dugu egitasmo hori. Aurretik beste formula batzuekin egin izan ohi genuen, baina azken urteotan liburutegia kalera atera izan dugu, eta azoka ere antolatzen dugu, dio Zumarragako kultura teknikari Izaskun Larrañagak. Kaleko Liburutegia eta Azoka apirilaren 24an ere egingo dute. Haurrentzako liburuak eta gurasoentzako aldizkariak izango dira, adibidez. Azokan liburu-dendatako merkatariek liburuak salgai jarriko dituzte, eta trukatzeko aukera ere izango da. Liburuak plazara, beraz.